

OSPITALE DOZENTE BATEAN LARRIALDIETAKO ZERBITZUAN EGINDAKO GUARDIATAN BAMEEK JASOTZEN DUTEN GAINBEGIRATZE MAILA

Pérez B, Suberbiola I, Ubeda W, Baranda B, Salaberria A, Ventura I.

Larrialdi zerbitzua. Donostia ospitalea.

Sarrera

Barne-mediku egoiliarrek (BAMEek) beraien ospitaleko formazio-prozesuan zehar larrialdietako zerbitzuan guardiak egiten dituzte, praktika klinikoan independentzia eta gaitasuna lortzeko helburuarekin

Helburuak

Lortutako ezagupen eta esperientziaren arabera, BAMEek, larrialdi-zerbitzuan egiten dituzten guardiatan duten autonomia maila aztertzea

Metodoak

Diseinua: Behaketa prospektiboa. Non: Donostia Ospitaleko larrialdietako zerbitzuan. Parte-hartzaileak eta aztertze-aldia: Larrialdi-zerbitzuan guardiak egiten dituzten 25 BAME, 2001/11/5etik 2001/12/5era bitartean. Esku-hartzea: Guardiaren hasieran, BAME bakoitzarentzat erreferentziako adjuntu bat izendatzen da. Guardian zehar BAMEak, datuak jasotzeko orri bat betetzen du, ikusten dituen gaixoak identifikatzeko eta hauek ikusten jasotzen duen gainbegiratze-maila (BAMEak ez dio zalantzarik galdetzen adjuntuari, adjuntuak gaixoa ikusten du, BAMEak beste BAME bati galdetzen dizkio zalantzak, BAMEak adjuntuari galdetzen dizkio zalantzak, adjuntuak informea irakurri eta ontzat ematen du).

Emaitzak

BAMEek ikusitako 1.169 gaixoetatik, 324 (% 27,71) adjuntuari galdetuak izan ziren (% 7,95 R1, % 6,93 R2, % 12,83 R3), 32 (% 2,74) beste BAME batekin (% 2,22 R1, % 0,51 R2, % 0 R3), 396 (% 33,87) kontsultatu gabeak (% 4,80 R1, % 38,89 R2, % 56,31 R3), 233 (% 19,93) adjuntuak gaixoa ikusi zuen (% 60,94 R1, % 21,46 R2, % 17,60 R3), eta 164 kasu (% 14,03) adjuntuak BAMEaren informea irakurri eta ontzat eman zuen (% 75 R1, % 18,29 R2, % 6,71 R3).

Ondorioak

BAMEek larrialdi-zerbitzuan guztira ikusitako gaixoen (% 61,60) gehiengoa (% 66,13) adjuntuek baloratua izan da, eta gutxi batzuetan (% 2,74) beste BAME batek, % 33,87 delarik BAMEak bakarrik ikusitako gaixoen ehunekoa, % 95,20tan bigarren urteko edo goragoko BAMEa izanik